

• ASTERO GAIA •

Erreferendumak XX. mendean



DANI BLANCO

Ibarretxe lehendakariak urriaren 25ean herritarrek galdeketa batera deituko dituela iragarri zuen duela hilabete gutxi. Oraingoz ez da seguru zein norabide hartuko duen ekimen horrek, baina ikusmina piztu du. Nolanahi ere, ez da euskal herritarrei “galdetzen” zaien lehen aldia.

Iragan mendeari begiratuta adibide batzuk aurki ditzakegu, hasi 1933ko Estatutuaren plebiszitoarekin eta bukatu frankismo osteko erreferendumekin. Gertakizun horien eragina eta ibilbidea ezagutzeko aukera duzue honakoa, etorkizuneko pronostikoak egiten hasi aurretik.

1933ko Autonomia Estatutua, euskaldunen lehen plebiszitoa

1933ko azaroaren 5ean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarrek Autonomia Estatutuari baiezkoa eman zioten gorabehera askoren ondoren. Parte-hartze harrigarria izan zuen galdeteka hark, baina herritarrek emandako erantzunak ez zuen askorako balio izan, Espainian eskuindarrak gailendu bezain pronto ezabatu baitzen Estatutua onartua izateko itxaropena.

JOSEBA AGIRREAZKUENAGA

XXI. MENDEAREN LEHEN HAMARKADAN erreferendum hotsak entzun dira gurean. Hala ere, oraingoz behintzat, balizko erreferenduma erabat gutxiturik geratuko da, populazioaren kontrako indarkeria tarteko. Euskal gizartearen dugu deslegitimazio iturri larria. 1933ko azaroaren 5eko plebiszitoan bi gertakizun ditugu garrantzitsu: lehenbizikoz emakumeek boto politikoa adierazteko aukera izan zuten. Horrez gain, euskal herritarrek agintaritzat politikoa zuzenean antolatu nahi zutela erakutsi zuten. Baina ez zen erraza izan erreferendum demokratikoa abian jartzea. Zertarako egin zen 1933ko erreferenduma? Euskal auzi politikoa ebazteko.

II. Errepublikak: autonomiara bidean

1931n, Errepublikako haize berriekin Jose Antonio Agirrek Eusko Ikaskuntzari Autonomia estatutu bat idazteko eskatu zion. Baina egitasmo juridiko berriak (*Anteproyecto de Estatuto. El Estado Vasco*) batetik eta bestetik zuzenketak jasan zituen. Ondorioz, katoliko eta jeltzaleek “Lizarrrako Estatutu” berria adostu zuten. Dena den, ez zuen aurrera egin, errepublikarren aurkako desafio gisa aurkeztu zelako. Aitzitik, hilabete batzuk beranduago, diputazioetako agintari errepublikano-sozialistek hartu zuten Autonomia Estatutua egiteko ardura eta estatu demokratikoen neurriko Estatutu berria idatzi zuten, Eusko Parlamentu eta Gobernuarekin. Proposamen

Estatutuaren plebiszitoak egunkarietan izan zuen oihartzunik. Ezker-eskuin: *El Liberal* egunkariaren portada bozketa auzitan jartzen; *La Voz de Guipuzcoan* emakumeek botoa ematen duten irudi bat; *Euzkadi* egunkariaren Estatutuaren alde bozkatzera animatuz.

berri honen aurrean, Manuel Irujok garbi utzi zuen PNVren jarrera: errepublikanoen ildotik indarrean zegoen legediaren bidez Autonomia Estatutua lortu behar zen. Horrek zatiketa eragin zuen koalizioan: PNV alde batetik eta Comución Tradicionalista bestetik. Eta laster batean katoliko-tradizionalistak borroka armatuaren bidez euskal populazioa erasotzen hasiko ziren, 1936ko uztailen.

Lau herrialdeetarako lehen plebiszitoa 1932ko uztailaren 3rako zegoen iragarrita, baina lehenago udal ordezkarien baiezkoa behar zen, eta Nafarroan ez zen horrelakorik lortu. Jakina, karlistak armak hartzeko bidean ziren eta abuztuaren Sanjurjok golpe militarra eman zuen Errepublikaren kontra. Zertarako, beraz, errepublikanoen autonomia? Militarren kolpeak porrot egin zuten egunkari eskuindarrak itxi zituzten eta iraillean Gobernu Errepublikanoak Catalunyaarentzako Estatutuaren onespina sinatu zuen Donostian. Egun berean, Indalecio Prieto sozialistak euskal Estatutuaren aldeko ekimenari heldu zion berriz ere. Egiazki, autonomiaren bidez hegemonia politikoa nork irabaziko zegoen jokoan: jeltzale eta katolikoak edo ezkerreko errepublikano-sozialistak.

Hiru herrialdeetarako Estatutua.

Diputazioetako buruek –errepublikano-sozialistak– PNV alde batera baztertu eta





euskal herrialdeak errepublikanizatu nahi zituzten. Autonomiarako testu berriak hiru herrialdeetarako gobernu erakunde komunak zituen eta ez foruei zegozkienak. Herrialde bakoitzak, hala ere, agente zabala izango zuen. Gainera, Nafarroari atea zabalik utzi zion.

1933ko abuztuaren 6an, Gasteizko Andre Mari Zuriaren jai giroan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udal ordezkariak autonomiarako egitasmo berriaren onspena azaltzeko bildu ziren. Baieztapena lortu ondoren, erreferenduma antolatzeko 18 kideko batzordea antolatu zen: 11 errepublikano, 2 sozialista, 4 katoliko eta PNVko bakarra –horietatik 9 diputazioetako ordezkari ziren eta beste 9 udal ordezkariak—. Batzorde honen antolaketa berebiziko garrantzia izan zuen, Estatutuaren aldeko deia pillean jarri zuelako. Eta plebiszitoa? ANV eta PNVk berehala egiteko eskatu zuten bitartean, sozialistek atzeratzea aldarrikatu zuten. Giro horretan, ANVren eta Gipuzkoako errepublikanoen prentsak Estatutuaren aldeko artikulua argitaratzen hasi ziren, Estatutuaren bidez Euskal Herria errepublikanizatuko zela adieraziz. Horien ustez Estatutua berehala jarri behar zen indarrean, PNVkoak errepublikanoen dinamikari sartuko zirelako modu horretan. Baina Bilboko sozialistak etorkizuneko Eusko Gubernuan jeltzaleek izan zezaketen nagusigoaren beldur ziren eta aitzaki horretan oinarriturik, Estatutuaren aurka egiten hasi ziren, bereziki Bilboko Rufino Laiseka buruzagiak gidatuta. Horra hor Prietoren kontraesana: Lehenengo bultzatzaile (1932), gero kontrario (1933) eta azkenik Estatutuaren egile (1936).

Bestalde, Lerrouxen Partidu Erradikalak ez zuen sostengu handirik Euskal Herrian eta

1933ko plebiszitoean emakumeek lehen aldiz botoa eman ahal izan zuten. Baiezkoa nagusitu zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, baina Nafarroan ez zen galdeketa egin. Irudian: Hernaniko (Gipuzkoa) Biteri eskolatan jende ilara botoa eman aurretik.

bere helburua koalizio errepublikano-sozialistari kalte egitea zen, horrek mesede egin zion PNVri. Horrenbestez, erreferenduma antolatzeko batzordeak Gobernuari azaroaren 5ean plebiszitoa egiteko proposatu zionean, honek hala agindu zuen. Agindu horrek ez zuen onartzen hautesleen mahaian partiduen izenean interbentorerik egoterik, bai ordea, udaletxetako, diputazio, kolegio profesional, langileen elkarteen izenean.

Kanpaina: zubiak eta zatiketak

Baiezkoaren alde, PNV eta ANV zeuden hasieratik. Errepublikanoen gehiengoak ere Estatutuaren alde egin zuen, ez ordea Gipuzkoan eztabaidarik sortu gabe. Izan ere, *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikarrak aldeko kanpaina sutua egin zuen eta Pedro Sarasquetak *Dios, el Estatuto Vasco y los Fueros* artikulua ezaguna idatzi zuen bertan –bistan denez, Jainkoa eguneroko politikan ageri zen—. XIX eta XX. mendeko karlistek piztu zituzten gerren giroan kokatu zuen eztabaida errepublikano eibartarrak, zera aldarrikatzeko: Estatutua foruzalea zela, baina herriaren aldeko foruen ildokoa eta ezelan ere ez monarkia absolutuaren foruen aldekoa. Bestalde, azaroaren 3an Manuel Azaña Donostian izan zen eta Errepublikaren egitekoa autonomia bermatzea zela aldarrikatu zuen.

Monarkikoen eta tradizionalisten artean zatiketa gertatu zen. Esaterako, Donostiako integrista katolikoen *La Constancia* egunkaria Estatutuaren aurka zegoen guztiz (*Fueros sí, Estatuto no*). Tradizionalisten buruzagien artean berriz, Oriol, Pradera eta Olazabal aurka zeuden, baina Oreja, Elorza eta Perez Arregik

Estatutuaren alde egin zuten. Beste zatiketa eta eztabaida Bilboko errepublikanoen artean gertatu zen. Azaroaren 2an, Acción Republicana, Partido Radical-socialista Independiente eta Federación Socialista Vizcaína-k abstentzioa aldarrikatu zuten. Oposizio hori oztopo latza zen Estatutuak behar zuen %66ko parte-hartzea lortzeko. Dena den, Bilboko Udaleko alkate Ernesto Erkorekak eta zinegotzi errepublikarrek Estatutuaren aldeko botoa eskatu zuten, eta Ramon Madariaga abokatu eta buruzagiak Acción Republicana utzi zuen, alderdiaren erabakiaren kontra zegoelako. Euskadiko Partidu Komunista alderdi txikiak Estatutuaren kontra egin zuen, bere ustez burgesiaren mesedeko zelako.

Zalantza handiena Araban zegoen. Horregatik, urriaren 29an, Estatutuaren aldeko ekin-tza nagusia Gasteizen antolatu zen. Mateo B. Morazaren omenez egin zen ekitaldia, 1876-1877an Espainiako Parlamentuan foruak sutsuki defendatu zituen politikaria. Gasteizen lau Diputazioetako agintari errepublikanoak, Bilbo, Donostia eta Gasteizeko alkateak eta udalerrietako ordezkariak bildu ziren, besteak beste; Catalunya eta Valentziako ordezkariak ere izan zen bertan. Hitzaldi nagusia Jose Antonio Agirre euskaraz eta gaztelaniaz jardun zen eta Ramon Madariagak Estatutuaren muina azaldu zuen. Ekitaldian, Bilboko koralak eta bandak Guridiren *Escenas vascas* eta *Gernikako arbola* kantatu zuten eta Donostiako Orfeoia kontzertua eskaini zuen bertaratu zirenentzat. Estatutuaren himnoa ere entzun ahal izan zen Arabako hiriburuan. Hurrengo astean, azaroaren 5ean bozketa egin zen, igandearekin. Parte-hartzea oso handia izan zen, handiegia sinesgarri izateko: Bizkaian %90, Gipuzkoan %91, baina Araban %58 –hauetatik %12 ezetzaren alde—. Beraz, kontsultak erraz gaintu zuen %66a, azken finean batez bestekoak hiru herrialdeen artekoa izan behar baitzuen. Salaketa ugari izan ziren ordea bozketa prozesuan; adibidez, norbaitek Indalecio Prietoren semearen izenean botoa eman zuen.

Osozunean baieztatu garaitu zuen arren, hurrengo hilabeteetan Jose Luis Oriol enpresari karlistak Arabako emaitzak baliatu zituen Espainiako Parlamentuan Estatutuaren tramitazioa oztopatzeko. 1933ko azaroaren 19an, Espainiako Parlamenturako hauteskunde nagusiak izan ziren; Euskal Herrian PNVren emaitzak izugarriak izan ziren, Estatutuaren aldeko uholdea bereganatu zuen alderdi jeltzaleak. Espainian aldiz, eskuinak irabazi zuen eta jakina zen Espainiako eskuinak ez zituela Estatutuak gogoko. Horregatik Prietoren esaldi ezagun hau: “Hauteskundeak irabazi dituzte, baina Estatutua galdu”. Eta hala gertatu zen, 1936ra arte ez baitzen Estatutuaren bidezko eusko agintaritarik lortu. ■

Eusko agente politikoaren bidea

1917	Hiru diputazioen manifestua, agente politikoa eskatuz.
1918	Lehen Estatutu egitasmoak
1931	Eusko Ikaskuntzaren egitasmoa.
1931	Katoliko-tradizionalista eta jeltzaleen “Lizarrako Estatutua”.
1932	Lau herrialdeetarako Batzordeen Estatutua.
1933	Hiru herrialdeetarako Batzordeen Estatutua.
1933ko azaroaren 5a	Hiru Herrialdeetarako Autonomia Estatutuaren Plebiszitua (baiezkoa nagusi)
1936	Autonomia Estatutua indarrean.
1979ko urriaren 25a	Hiru Herrialdeetarako Autonomia, “Gernikako Estatutua”ren Erreferenduma (baiezkoak irabazi)
1982	Nafarroako Foru Hobekuntza: Nafarrek ez dute bozkatzeko aukerarik.

Frankismoan, erreferendumak

1947	Espainiako Buruzagitza Oinordekotzarako Legearen kontsulta.
1966	Espainiako Lege Organikoaren Legerako kontsulta.

Frankismo ostean

1976ko abenduaren 15a	Espainiako Erreforma Politikorako Legearen Erreferenduma (abstentzioa nagusi).
1978ko abenduaren 6a	Espainiako Konstituzioaren Erreferenduma (abstentzioa nagusi).
1979ko urriaren 25a	Hiru Herrialdeetarako Autonomia, “Gernikako Estatutua”ren Erreferenduma (baiezkoak irabazi).
1986ko martxoaren 12a	Espainia NATO n sartzeko galdeketa (ezezkoak irabazi).

Ipar Euskal Herrian

1958ko irailaren 28a	V. Errepublika Frantsesaren Konstituziorako plebiszitua (onartua).
1962	Frantziako presidentea aukeratzeko Legearen kontsulta.

Franco osteko erreferendumak: abstentzioa, baiezkoa, ezezkoa

Frankismotik ateratzean hainbat galdeketa fuintsezko egin ziren. Berrogei urteko diktaduraren ostean alderdi bakoitzaren jarrera ikusteko zegoen. 1976an Lege Politikoaren Erreforma onartzeko erreferendumak, adibidez, bakoitzaren indarrak neurtzeko balio izan zuen. Ondoren etorri ziren Konstituzio, Estatutu eta NATO-ri buruzko erreferendumak.

FRANCOK URTEBETE zeraman hilobian, baina Gorte frankistak oraindik indarrean zeuden Erreforma Politikoaren Legea abiarazi zutenean; frankismo osteko lehenengo erreferenduma. Orduan ilegalak ziren alderdi ezkertiarrek abstentzioaren aldeko jarrera azaldu zuten aho batez. Baiezkoaren alde, berriz, Gobernu eta hainbat talde eskuindar agertu ziren eta eskuin muturrean zeudenak baiezko eta ezezkoaren artean banatu ziren. 40 urtean lehen aldiz kanpaina moduko bat egin behar zuten batzuek eta besteek, baina egoera eta baldintza oso ezberdinetan.

Gobernuak 1.200 miloi pezetara erabili zituen aldeko botoa lortzeko propagandan. Legeritik kanpo zeuden alderdiak –PSOEtik ezkerreko zeudenak– alderdi sozialista bera eta EAJ bezalako nazionalistak, ezinezkoa izan zuten nolabaiteko berdintasunez lehiatzea. Klandestinitatetik ateratzen ari ziren eta aldizkari eta medioak hobetu eta ugaritu zituzten arren, hori eskasa zen oso Gobernuak zuen komunikabideen hegemoniaren aurrean. Hainbat egunkari eta kazeta –*Berriak* eta *Punto y Hora de Euskal Herria* jaioberriak, *Cuadernos para el Dialogo*, *Triunfo*, edo aitzinagotik zetorren *Argia*...– ikuspegi kritikoagoa zabaltzen saiatu ziren, baina komunikazio ahalmen askoz apalagoarekin, isunen edo itxieraren ezpata oso gertu baitzuten. Oztupo horien gainetik, Euskal Herrian talde guztiek bat egin zuten abstentzioa eskatzeko. Horien arabera, alderdiak legalizatu gabe eta oinarritzko eskubideak bermatu gabe zeuden bitartean ez zegoen parte hartzerik.

Hainbat alderdirekin agintekak bigun jokatu zuen bitartean –batez ere PSOE eta EAJrekin–, beste batzuekin errepresioa gogortu egin zen eta atxiloteta masiboek berdin jarraitu zuten. Bestalde, presoek auzia kalean zegoen egundoko indarrarekin: “Gabonetarako danak etxera” ekimena aurrera eramanez nahian zebiltzan milaka lagunek zapalkuntzarekin egin zuten topo. Testuinguru horrek akuilatu zuen abstentzioaren aldeko jarrera, baina era-

JOSU CHUECA

Goiko irudian: Buruzagi politiko ezagunak Anoetako Belodromoan Estatutuaren alde egindako mitin bateratuan. **Beheko irudian:** Antton Olariagak 1976ko erreferendumaz Zeruko ARGIA argitaratutako marrazkia.

kunde guztiek oso ongi zekiten egoera horretan ezinezkoa zela Erregimenak prestaturiko dema irabaztea. Izan ere, abstentzio aktiboaren aldeko kanpaina sutsua egin zuten arren, Espainiako Estatuan aise nagusitu zen baiezkoa. Aldiz, euskal lurraldeetan emaitzak ezberdinak izan ziren. Gipuzkoan abstentzioa gailendu zen erabat, eta baita Bizkaian ere, baina modu lau-soagoan –eroldaren erdia abstenitu zen kasik–. Araban eta Nafarroan, nahiz eta botoa ematera joan ez zirenen kopurua garrantzitsua izan, Estatuko lurraldeetako portzentajeetatik gertuago ibili ziren.

1978: Konstituzioari... abstentzioa

Arras ezberdina izan zen Trantsizioko bigarren erreferenduma, hau da, 1978ko Konstituzioa erabaki behar zuena. Ordurako erakunde gehienak legalizaturik zeuden: ezker muturrekoak, ETA (pm)tik zetorren EIA, HBren koalizioa... Bestalde, Fran Aldanondo kartzelatik atera zenetik amnistia emanda zegoen arren, espetxeak preso berriez betetzen hasi ziren. Baina 1978ko ardatz politiko nagusia Konstituzioaren eztabaida izan zen. Estatuaren oinarritzko lege horren aurrean indar politiko guztiak birkokatu egin behar izan ziren. Euskal Herrian, erakunde abertzaleak ez ezik, ezker muturreko talde gehienak ere gogor azaldu ziren Konstituzioaren aurka. Aitzitik, UCD eta AP eskuindarrekin batera, Alderdi Komunitarioa, PSOE eta ORT zein PTE aritu ziren Konstituzioaren alde. Jakina, lerrokatze hori aurretik zetorren, Suarez alderdiak, sozialistek eta PCEk Parlamentuan adostu baitzuten Konstituzioa, talde abertzaleak zokoratuz. Txosten konstituzionaletik at

geratzeaz gain, Euskadiko Ezkerrak eta Eusko Alderdi Jeltzaleak aurkeztu zituzten emendakinek atzera bota zituzten. Horregatik, alderdi honek bat egin zuten Konstituzioa errefusatzeko kale mobilizazioetan. Dena den, *carta magna* arbuizatzeko jarrera ezberdinak plazaratu zituzten: ezezko botoa EEK, HBk, LKIk, HASIk eta LAIAk bultzatu



XX. mendeko erreferendumak Hego Euskal Herrian (%)

	1933 Estatutua			1976 Erreforma			1978 Konstituzioa			1979 Estatutua			1986 NATO		
	Bai	Ez	Abstent.	Bai	Ez	Abstent.	Bai	Ez	Abstent.	Bai	Ez	Abstent.	Bai	Ez	Abstent.
ARABA	46'40	12	42	92'19	2'72	23'47	72'45	19'47	40'71	83'7	9	36'8	36'99	59'55	31'52
BIZKAIA	88'44	1'8	10	91'04	3'84	45'17	73'01	21'42	57'54	90'8	4'9	42'5	32'19	65'03	36'18
GIPUZKOA	89'52	1'57	9	91'92	2'69	54'75	64'56	30'22	56'57	91'9	4'1	40'3	28'72	68'99	34'52
NAFARROA				93'08	2'69	26'37	76'42	17'11	33'37				40'77	53'44	37'36

* Baiezko eta ezezkoen ehunekak partaidetzaaren gainean eginda daude, 1933ko kasuan izan ezik.

zuten; ESEI, EMK-OIC eta EAJ, ostera, abstentzioaren alde aritu ziren.

Duela 30 urteko abenduaren 6 hartan, Konstituzioak erreferendumaren frogua gaitzitu zuen Espainiako Estatuan –parte-hartzea %70era iritsi zen eta horietatik %87 aldeko botoak izan ziren–. Euskal Herriko emaitzak hagitx desberdinak izan ziren ordea. Nahiz eta baiezkoak irabazi, askoz era otzanagoan egin zuen. Nafarroan eta Araban ozta-ozta nagusitu zen baiezkoa abstentzioaren gainetik. Gipuzkoan eta Bizkaian, abstentzioak irabazi zuen eta ezezkoen portzentajea oso altua izan zen.

Konstituzioa Espainiako Aldizkari Ofizialean azaldu zen egunean bertan, 1978ko abenduaren 29an, Eusko Kontseilu Nagusiak Estatutuaren azken testua prestatzeari heldu zion. Orduz geroztik, 1979an zehar, parlamentuko ekimenak eta ekitaldi publikoak ugaltu egin ziren Autonomia Estatutuaren alde, eta UCD eta EAJ negoziatzen hasi ziren. Erabateko onespena izateko baina, azken urratsa falta zen: 1979ko urriaren 25eko erreferendumean herritarren babesa lortzea. Eta hain zuzen, euskal lurraldeetako foruak konstituzio espainolaren menpe jarri zituztenetik 140 urte betetzen ziren egun berean, hain zuzen ere.

Instituzioetan Estatutua onartzeko erabateko adostasuna zegoen bitartean, euskal gizartearen zatiketa oso sakona zen, esparru abertzalean bereziki. Esaterako, ETA(pm)-k *Estatutuarekin Presoak Kalera!* zioen; antzekoak izan ziren Euskadiko Ezkerraren argudioak ere. Noski, izan zen abertzaleen artean aurkako jarrera gartsua azaldu zuenik. Herri Batasunak abstentzioaren aldeko kanpaina erraldoiari ekin zion: Moncloan negoziaturiko Estatutua oso gogor gaitzetsi zuen koalizio berriak, batez ere Nafarroa euskal erkidego berriak landa geldituko zelako. EMK eta LKI alderdiek bat egin zuten ideia horrekin eta Autonomia Estatutua gaitzetsi zuten hauek ere. Norabide politiko desberdinetako atentatuek eta manifestazio-kontramanifestazioek giroturiko testuinguru zail hartan, mitin erraldoi eta bateratuak egin zituzten. Estatuko alderdiek buruzagi zenbait Euskal Herriratu zituzten aldeko botoa hauspotzeko. EAJk Euzko Gudarosteko gudari ohien izenak plazaratu zituen “Estatu-

tuaren alde” zeudela aldarrikatzeko. Donostiako Belodromoa izan zen mitinak antolatzekeo batzuek eta besteek erabili zuten aretorik handiena eta neurgailu esanguratsuenak. HBk ezetza eskatzeko 10.000 lagun bildu zituen, EAJk, EPKk, PSEk eta ESEIk aldiz, 12.000 jarraitzaile elkartu zituzten baiezko botoaren alde. Azkenean, urriaren 25ean Estatutuaren aldeko jarrera nagusitu zen. Dena den, Gipuzkoan eta Bizkaian abstentzioa %40ra iritsi zen eta Araban %36ra.

Nafarroa berriz ere baztertua

Estatutuaren kanpaina puri-purian zegoen unean, Hego Euskal Herriko lurraldeak batzeko beste erreferenduma bazterrean geratu zen. Konstituzioko 4. xedapen iragankorrak Nafarroa eta erkidego berria lotzea aurreikusten zuen, baina Nafarroako Parlamentuak atzera bota zuen aukera hori. Izan ere, xedapen horrek proposatutako bidean sakontzeko asmoz Euskadiko Ezkerrak, ESEIk eta PTEk aurkezturiko mozioa ez zen onartu, UCD eta UNren botoekin eta PSOEren abstentzioarekin. Beranduago, Nafarroako Diputazioaren zati batek –PSOE eta UCD– Foru Hobekuntza negoziatu zuen Madrilgo Gobernuarekin; jakina, inolako erreferendumik egin gabe. Garbi gelditu zen alderdi horien bikoiztasun zikoitza, nafarrek gainontzeko euskal biztanleekin bat egiteko ezinbestekotzat jotzen baitzuten Parlamentuaren baimena eta herri kontsulta, baina beraiek prestatuturiko “Amejoramendu” horrentzat herritarren iritzia edo borondatea hutsaren hurrengoa zen. Ederki asko zekiten buruzagi nafar horiek erreferenduma egiteak kolokan jar zezakeela hain era ertsian prestatuturiko Foru Hobekuntza. Eta hori pasa zitekeela arraz argi gelditu zen 1986ko martxoak 12an, egun horretan, arabarrek, bizkaitarrek eta gipuzkoarrek bezala, NATO sartzearan kontra bozkatu baitzuten nafarrek. Orduz geroztik, agintetik gertu dagoen inongo politikarik ez du maite herri kontsulta, eta askoz gutxiago Euskal Herrian eginga bada. ■

<http://www.argia.com>
helbidean, XX. mendeko galdeketei buruzko irudien bilduma ikusgai.